

## » TELEGRAMA

Telebistatik egingo zaizu ezagun **Zuhaitz Gurrutxaga**, baina lehenago futbolari izandakoa da: *Futbolisto baten konfidentziak* lanean umorez kontatuko du esperientzia hori: Gasteizen maiatzaren 5ean, Principal antzokian **STOP Sacco** taldearen post-rock irundarra eta **Capsula** bilbotar-argentinarren rock psikodelikoa: Intxaurren Kultur Etxea, maiatzak 7: ez galdu **STOP FANT** Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren XXII. edizioa maiatzaren 6tik 13ra bitartean: 82 filmeko betekada itzela **STOP**

## » DISKOA

## Gordin eta indartsu



Joxi Ubeda



### Adorez HUMUS

Bonberenea Ekintzak, 2016

Tolosako Humus taldea bere jatorria itzuli da. Hiruko gisa hasi ziren, laukote gisa ere aritu izan dira, eta hiruko bezala osatu dute azken lana. Natalia (ahotsa eta baxua), Mantxi (gitarra) eta Aritz (bateria) dira taldekideak.

Beren azken diskoko kantuak oso indartsuak dira. Melodiak arretaz landu dituzte, eta doinu trinkoa, gordina, zuzena, zehatza eta sendoa gauzatu dute Karlos Osinagarekin, Bonberenea estudioan, aurtengo otsailean. Taldeak jendaurreko emanaldietan transmititzen duen indarraren eta intentsitatearen ispilua da diskoa. Taldekideek dioten bezala, agertokia baita beren tokia –*Saurius* aurreko diskoarekin 40 emanalditik gorako bira luzea egin dute— eta lan berria jendaurrean jotzen erakusteko irrikan daude.

Formatu polita du Humus taldearen lan berriak, dotorea. Lau kantuz osaturiko EP bat da, eta hamar hazbete-ko binilozko disko bat eta CD bat barne hartzen ditu. Lau kantuak binilozko diskoan eta CDan entzun daitezke. Tzesnek ederki egin die diseinu lana.

Edukia ere ederra da. Rock eta post-hardcore ukituak nabari daitezke kantuetan, baina, batez ere, kemen eta grina handiz aritu direla grabazio saioetan. *Adorez* kantuan, gainera, Glaukoma taldeko Juantxo Arakamak abesten du eta rap-metal kutsuko kantua osatu dute.

Doinuetan bezala, hitzetan gordin egingo dute gogoeta, barkamena, adorea, beldurra, besteekiko menpekotasuna eta beste hainbat sentimenduren edo egoeren gainean.

Taldeak eskarmentu handia dauka, ibilbide luzea eginga baitauka. 1998an jaio zen, eta *Adorez* lana burutu aurretik disko hauek kaleratu ditu: *Pulper* (auto-ekoizpena, 2000), *Agortzeke* (auto-ekoizpena, 2002), *Leihotik begira zai* (Bonberenea Ekintzak, 2003), *Lekua* (Bonberenea Ekintzak, 2008) eta *Saurius* (Bonberenea Ekintzak, 2013).

Natalia eta Mantxi dira gidariak. Taldeak urteotan aldaketa batzuk izan ditu partaideen artean, eta abeslaria eta gitarra-jotzailea dira hasieratik ari direnak. Entseguz entsegu, emanaldiz emanaldi, kantuz kantu eta diskoz disko beren doinua eraiki dute eta doinu hori fintzen eta hobetzen ari dira, zer egin nahi duten oso ongi baitakite. ■

Natalia eta Mantxi dira gidariak. Taldeak urteotan aldaketa batzuk izan ditu partaideen artean, eta abeslaria eta gitarra-jotzailea dira hasieratik ari direnak. Entseguz entsegu, emanaldiz emanaldi, kantuz kantu eta diskoz disko beren doinua eraiki dute eta doinu hori fintzen eta hobetzen ari dira, zer egin nahi duten oso ongi baitakite. ■

*Humus*  
talde tolosarra.

